

**IKASLEAK ERDIGUNE DITUEN
IKASKUNTZARI BURUZKO
POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA**



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



Eginbidea, Idazkaritza Exekutiboarena, zeinaren bidez jasotzen baita posizionamendu hau 2019ko apirilaren 25ean egindako 65. Batzar Nagusi Arruntean onetsi zela, lehendakariaren oniritziarekin.

José María Rosell Bueno

*Presidente de la Coordinadora de
Representantes de Estudiantes
de Universidades Públicas /
Unibertsitate Publikoetako
Ikasleen Ordezkarien
Kordinakundearen idazkari
exekutiboa*

Pablo Alcaraz Martínez

*Presidente de la Coordinadora
de Representantes de
Estudiantes de Universidades
Públicas / Unibertsitate
Publikoetako Ikasleen
Ordezkarien Kordinakundearen
lehendakaria*

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
1.1. Jatorria eta Europako testuingurua	2
1.2. Ikasleak erdigune dituen ikaskuntza Espainiako Unibertsitate Sistemari	3
2. Zer eredu nahi dugun	6
2.1. UNIBERTSITATEAREN EGITURARI ETA ANTOLAKETARI DAGOKIONEZ	7
2.2. IRAKASLEEI DAGOKIENEZ	7
2.3. IRAKASKUNTZA-METODOLOGIEI DAGOKIENEZ	8
2.4. EBALUAZIOARI DAGOKIONEZ	8
2.5. KALITATE BERMEARI DAGOKIONEZ	8
3. Ondorioak	9



1. Sarrera

1.1. Jatorria eta Europako testuingurua

«Ikasleak erdigune dituen ikaskuntza» terminoa (hemendik aurrera, IEI) XX. mendearen hasieran sortu zen. Ikaskuntza mota horren oinarria da ikasleak eraikitzen duela ikaskuntza, hau da, jakintzaren inguruko esanahi propioa eraikitzen duela ikasleak bere beharren eta itxaropenen arabera. Ikuspegi horrekin lan eginez gero, irakasleek ikasle bakoitzaren errealitatea ulertu behar dute, eta ikasleen ezaugarri oinordetuak, perspektibak, aurretiko esperientziak, talentua, interesak, gaitasunak eta beharrak ezagutu eta sostengatu. Hortaz, ikasleak hartzen du bere prestakuntzaren ardura aktiboa eta nagusia.

Hala ere, ez dago «ikasleak erdigune dituen ikaskuntza» kontzeptuaren definizio unibertsalik, nahiz eta termino hori asko erabiltzen den goi mailako hezkuntzako erakundeetan. Hori dela medio, urteak joan urteak etorri, ikuspegi hori ez da behar bezala aplikatu, eta disfuntzionalitate ugari ekarri du horrek.

Kontzeptua sortu zenetik, aditu baten baino gehiagoren lanarekin lotu da, hala nola Piageten (garapenaren ikaskuntza) eta Malcolm Knowlesen lanarekin (ikaskuntza autogidatua). Alabaina, XX. mendearen bukaeran proposatu zuten McCombsek eta Whislerrek ikuspegi berria: ikasleen eta ikaskuntza-prozesuaren ulerkera berri bat, ikasle bakoitzaren indibidualtasuna irakaskuntzaren funtsezko zutabetzat hartzen zuena. Hala, ikerketak eta berrikuntza pedagogikoak argitu zuten zergatik zen desegokia unibertsitate erakundeak eta irakasteko metodologiak egituratzea prestakuntza eraginkor eta efizienteena lortzeko.

1968ko maiatzeko Frantziako protestetan, ikasleen mugimenduak dagoeneko aldarrikatu zuen unibertsitateko irakaskuntzaren erdigunea ikaslea izan behar zela. Nolanahi ere, Boloniako prozesuan zeharka landu zen kontzeptua kalitate berme edo



dimentsio sozial gisa, baina ez zen Europako Unibertsitate Eremuan (EUE) agertu 2009ko Leuven/Louvain-la-Neuve-ko Konferentzia Ministerialaren adierazpena ezagutzera eman zen arte. Adierazpen horrek dioenez, [...] *oso garrantzitsua da ikaskuntza indibiduala indartzea, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako ikuspegi berriak finkatzea, laguntza eraginkorra eta orientaziorako egiturak eskaintzea, eta ikaslea erdigune duen ikasketa-plan bat finkatzea hiru zikloetan... Gainera, irakasleek, ikasleen ordezkariekin lankidetzan estuan, ikaskuntza-emaitzak eta nazioarteko erreferentzia-puntuak garatzen jarraituko dute gero eta arlo gehiagotan.*

2012an, ikasleak erdigune dituen irakaskuntzaren eta ikaskuntza-emaitzen garrantzia berretsi zituzten Bukaresteko Konferentzia Ministerialean, erakundeek zailtasunak baitzituzten ikasleen beharretara egokitutako hezkuntza-programak eskaintzeko, eta kolektibo guztiei eskatu zitzaaien gobernu organoetan parte-hartze handiagoa izateko. Bestalde, Europako Batzordearen *Re-thinking Education* izeneko komunikatuan, azpimarratzen da *trebetasunak garatzeko hezkuntzan eta trebakuntzan inbertitzea funtsezkoa dela gizartearen garapena bultzatzeko*, eta inportantea dela ikaslea ardatz duten hezkuntza-berrikuntzako proposamenak egitea.

Era berean, European Students' Union elkarteak (ESU) zenbait proiektu egin ditu goi mailako hezkuntzarekin zerikusia duten Europako beste erakunde batzuekin batera, hala nola *Time for a New Paradigm in Education: Student Centered Learning* (T4SCL) edo *Peer Assessment of Student Centred Learning* (PASCL) izenekoak, ikaskuntzako eredu kultural hori Europar Batasuneko estatu kideetan hedatzeko eta ezartzeko.

1.2. Ikasleak erdigune dituen ikaskuntza Espainiako Unibertsitate Sistematan

Espainiako Unibertsitate Sistemako ikasle, irakasle eta unibertsitate-erakundeek ez dute kontzeptua ongi ezagutzen, eta ez dute behar bezala inplementatu.



Horren ondorioz, handitu egin da ikasleen lan karga ikasturtean zehar. Izan ere, ECTS kreditu¹ baten lan karga kalkulatzeko, ez ikasleak ez irakasleak ez dira ohartzen benetan zenbat denbora behar den, eta, beraz, ez dira lortzen irakaskuntza-gidan ezarritako ikaskuntza-emaizak.

Bestalde, IEIaren pertzepzio okerra aitzakia izan da ebaluazio sistemak arautzeko eta zenbait gezur zabaltzeko, besteak beste “Boloniak irakasgaiak presentzialak izatera behartzen duela” edo “Boloniak ebaluazio jarraitua egitera behartzen duela”.

Izan ere, aitzakia horiek baliatu dira klase magistraletara jende gehiago joan dadin eta ebaluazio sistemak zurrunagoak izan daitezten, eta justu kontrakoa da kontzeptuak defendatzen duena. Ebaluazio jarraituaren bidez, lan karga ikasturtean zehar dosifikatuz baloratu nahi da ikasleen aurrerabidea. Batzuetan, etengabe ebaluatzen da, eta lan pila bat agintzen dira, nahiz eta ez irakasleek ez ikasleek astirik ez izan dena egiteko. Ebaluazio jarraitu horren balio akademikoa azkeneko kalifikazioaren ehuneko oso txikia izaten da. Horrek frustrazio handia eragiten die ikasleei, zaila egiten baitzaie unibertsitateko betebeharrak eta bizitza pertsonala uztartzea. Azken urteotan, ikasleak erdigune dituen ikaskuntzak ez du aurrera egin Espainian.

Kontzeptua zabala izatea da arazoetako bat, modu batean baino gehiagotan interpreta baitaiteke. Horregatik, European Students' Union elkarteak eta Education International izeneko irakasleen nazioarteko elkarteak honako printzipio hauek hautatu zituzten ikasleak erdigune dituen ikaskuntzaren oinarri gisa:

1. printzipioa. Ikasleak erdigune dituen ikaskuntzarako, beharrezkoa da etengabeko hausnarketa-prozesu bat. Filosofia horrek dio garrantzitsua dela ikasleek, irakasleek eta

¹ ECTS (European Credit Transfer System) batez besteko lanaren neurria da (25 eta 30 ordu bitarte), eta Europako Unibertsitate Eremuko unibertsitate guztiek erabiltzen dute eskaintzen dituzten ikasketen homogeneotasuna eta kalitatea bermatzeko eta ikasketa-planeko helburuak lortzeko.



unibertsitate-erakundeek behin eta berriz eztabaidatu eta gogoeta egitea ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeko metodoei buruz. Horrela, planifikatutako ikaskuntza-emaitzak lortuko dituzte ikasleek, eta, aldi berean, pentsamendu kritikoa eta zeharkako trebetasun pertsonalak garatuko dituzte.

2. printzipioa. Ikasleak erdigune dituen ikaskuntzak ez du formula bakarra. Ezinbestekoa da ulertzea IEIaren helburua ikaskuntza irakasle eta ikasleen egoerara eta baliabideetara egokitzea dela. Beraz, ikaskuntza-testuinguru bakoitzean modu berezian lan egiteko tresnak eman behar zaizkie bai irakasleei bai ikasleei.

3. printzipioa. Ikasleak aukera izan behar du modu eraginkorren nola ikasi nahi duen erabakitzeke. Ikasteko modu bat baino gehiago dute ikasleek, eta, beraz, behar pedagogikoak ere diferenteak dira. Hori dela eta, ikasleei aukera eman behar zaie zer eta nola ikasi nahi duten aukeratzeko, modu eraginkorragoan ikasiko baitute eta kontentago egonen baitira.

4. printzipioa. Ikasleak erdigune dituen ikaskuntzak ikasleak ahalduntzea du helburu, ez irakastea. Hezkuntza tradizionalen eta gaur egungo hezkuntzaren parte handi batean, ikasi beharrekoa kontatzen dio irakasleak ikasleari. IEIan, aldiz, ikasleak ardura handiagoa hartu behar du bere ikaste prozesuan, eta pentsatu, gogoeta egin, prozesatu eta aztertu egin behar du.

5. printzipioa. Aukeratzea funtsezkoa da ikaskuntza eraginkorra izan dadin. Ikasle bakoitzari gauza jakin bat eta modu jakin batean ikastea gustatzen zaio, eta, beraz, aukera batzuk eman behar zaizkio —arrazoizko kopuruan—, ikasleen jakin-mina eta lehenetasunak asetzeko. Malgutasunez antola daitezke ikasteko formatuak, kontuan hartuz ikasi beharreko irakasgaiak nolako mugak dituen.

6. printzipioa. Ikasle batzuek eta besteek aldeztu aurretiko esperientzia eta jakintza desberdinak dituzte. Norbanakoaren bizitza pertsonalera eta esperientzia profesionalera egokitu behar da ikaskuntza. Ohartu behar gara ikasleak badituela aldeztu aurreko ezagutza batzuk, eta ez zaiola berriz gauza bera irakatsi behar. Ikasleak



motibatzeko ere erabil daiteke esperientzia pertsonala, adibidez ikasleei gertatutako zerbait besteekin partekatzeko aukera emanaz gairen baten adibide gisa.

Bestalde, ikasteko gaitasuna heldu egiten da bizitzan aurrera egin ahala, eta, beraz, ez du zentzurik ikasleak dagoeneko badakien zerbait irakasten saiatzea. Ikasleak hobeki ikasten du irakasten zaiona egokia denean bere garapen mailarako, gozatzeko modukoa denean, interesgarria iruditzen zaionean eta erronka bat denean.

7. printzipioa. Ikasleak erdigune dituen ikaskuntzarako, elkarlanean aritu behar dira ikasleak eta irakasleak. Filosofia horren arabera, irakaslearengandik ikaslearenganako norabide bakarreko komunikazioa hausten denean, aukera berriak sortzen dira ikasleek elkarrengandik ikas dezaten eta irakasleak informazioa jaso dezan ikasleengandik prozesu pedagogiko osoari ekiteko.

8. printzipioa. Ikasleak kontrolatu behar du erabat ikasteko prozesua. Ikasleei modua eman behar zaie beren ikaskuntza-prozesuaren eta ebaluazioaren diseinuan parte hartzeko. Ikasleak parte-hartzaile aktibo gisa ikusi behar dira, eta eginkizun garrantzitsua izan behar dute beren buruari eta, oro har, unibertsitateari buruzko erabakiak hartzeko garaian.

9. printzipioa. Ikasleak ez dira berdinak: behar eta interes jakin batzuk ditu bakoitzak. Ulertu behar dugu ikaslea zirkunstantzia familiar, afektibo edo pertsonal askotarikoetan murgilduta dagoela, eta horrek berdingabea egiten duela.

2. Zer eredu nahi dugun

Ikasleak erdigune dituen ikaskuntzaren kontzeptua, ezaugarriak eta printzipioak ikusi ditugunez, bai eta Espainiako Unibertsitate Sistemaren kontzeptua nola txertatu den eta Europan ezartzeko zer egiten ari diren ere, honako gogoeta hauek eman behar ditugu ezagutzera, unibertsitateko ikasleen eskubideak defendatzen dituen elkarteak gairez gero, eta ibilbide-orri bat ezarri inplikaturako eragileekin ikasleak erdigune dituen ikaskuntza ezartzeko.



2.1. UNIBERTSITATEAREN EGITURARI ETA ANTOLAKETARI DAGOKIONEZ

- Irakaskuntza-giden eta -ibilbideen diseinuan ikasleak subjektu aktibo izan behar direla onartu behar da. Ikasleen zeregina funtsezkoa da titulazioen prestakuntza-programak garatzeko, eta benetako boterea ematen die horrek ordezkartza-organoetan diharduten ikasleen ordezkariari, sailetan dihardutenei bereziki.
- Gure ustez, ikasketa-planen edukiak malguak izatea onartu behar da konfigurazio askeko kredituen, aukerako irakasgaien edo bestelako tresnen bidez, ikasleek beren itxaropenekin bat datorren ibilbidea hauta dezaten. Gainera, halako kredituak aski zabalak eta askotarikoak izan behar dira ikasleen jakin-mina asetzeko eta errealitate sozialera egokitzeko.
- Europako Unibertsitate Eremuaren (EUE) ereduari jarraikiz, irakaskuntza-guneak berregituratzeko hasierako ideiarekin jarraitu behar da, eta talde txikientzat diseinatutako ikasgelen aldeko apustua egin, ikasleen eta irakasleen arteko harremanak estutzearen.

2.2. IRAKASLEEI DAGOKIENEZ

- Irakasleak trebatu egin behar dira irakaskuntza-berrikuntzako metodologia berrietan, goi mailako hezkuntzari eta ikasleak erdigune dituen irakaskuntzari buruzko ikastaroak eta hitzaldiak emanez eta irakasteko teknika berrien irakaskuntza-, ikerketa- eta dibulgazio-lanak modu berean aitortuz.
- Irakasleak hautatzean, kontuan hartu behar da esperientzia edo prestakuntza ba ote duten ikasleak erdigune dituen irakaskuntzan, eta lehenetsuna eman behar zaie irakasle inplikatuari eta kalitateko prestakuntza berritzaile eta eraginkorra emateko gauza direnei, ikerketan jardun izana soilik lehenetsi beharrean.
- Gure ustez, ikasleak erdigune dituen ikaskuntzaren printzipioak errespetatzen eta betetzen dituzten metodologiaren erabilerak kontuan hartzeko alderdia eta eskakizuna izan beharko luke —eta ez aitorpen huts bat— irakasleei buruzko inkestetan.



2.3. IRAKASKUNTZA-METODOLOGIEI DAGOKIENEZ

- Metodologia hautatzeko aukera eskaini behar zaie ikasleei, eta beren gaitasunekin eta beharrekin bat datozen ebaluazio jarraituak eta bukaerakoak edukitzeko.
- Bestalde, klase magistraletik harago doazen irakasteko metodologiak erabili behar dira irakasgai beraren barruan, ikasleek beren gaitasunak balia ditzaten ikaskuntza eraginkorragoa egitearren.
- Gainera, zeharkako trebetasunak garatzea bultzatu behar da, hala nola pentsamendu kritikoa, talde-lana edo arazoak konpontzeko gaitasuna.

2.4. EBALUAZIOARI DAGOKIONEZ

- Ikasleak ebaluatzeko metodoak dibertsifikatu egin behar dira ikaskuntza-emaitzak eta gaitasunak hobeki eskuratzeko, eta Europako Unibertsitate Eremuak defendatzen duen prestakuntza jarraitura egokitu behar dira. Gainera, irakasgai jakin baten lan-karga haren ebaluaziorako esleituta duen ehunekoaren araberakoa izan behar da.
- Ona iruditzen zaigu autoebaluazioa eta ebaluazio kooperatiboa sustatzea, bai eta ikasleen pentsamendu kritikoa eta ikaskuntza-prozesuari buruzkoa garatzea ere.

2.5. KALITATE BERMEARI DAGOKIONEZ

- Ikasleak erdigune dituen irakaskuntzari lotutako irizpideak aintzat hartu behar dira tituluen kalitatea ebaluatzean.
- Barne kalitatea bermatzeko prozesuetan ikasleek parte har dezaten bultzatu behar da, eta emaitzak argitaratu, ikasleak ohar daitezzen zenbateko ahalmena eta eragina duten egiaz, eta gehiago parte har dezaten.
- Gure ustez, kalitatea bermatzeko prozesuetan benetako garrantzia izan behar du ikasleek adierazitako iritziak zer-nolako irakaskuntza jaso duten eta beren beharretara zenbateraino egokitu den galdetu dietenean.



- Unibertsitateetan IEIari dagokionez kalitatea bermatzeko irizpideak eta jarraibideak zorrotzu eta zehaztu egin behar dituzte ebaluazio- eta egiaztapen-agentziek, eta garrantzi handiagoa eman ikasleen elkarrizketei eta ikasgaietan erabilitako metodologiaren balorazioari.

3. Ondorioak

Funtsezkoa eta lehentasunezkoa iruditzen zaigu Espainiako Unibertsitate Sistemaren IEIaren inguruko mito faltsuak baztertzeko, kontzeptu horren izenean hutsegitez edo ezjakintasunagatik ezarri diren jardunbide txarrak desagerrarazteko.

Nahiz eta ikasleak erdigune dituen irakaskuntzaren kontzeptuak ikaslearen zeregina lehenetsi, horrek ez du txikitzen inola ere irakaslearen eginkizuna. Ikasleen beharretan oinarritu behar da irakaskuntzaren hobekuntza. Barne kalitatea bermatzeko prozesuetan, modu aktiboan erabili behar da *feedbacka* ikasketa-planak garatzeko, eta lortutako emaitzei dagozkien ekintzak egin.

Ikasleek unibertsitate-komunitatearen parte gisa parte hartzea eta ordezkaritza izatea funtsezkoa da beren ikaskuntzaren ardura har dezaten.

Horregatik guztiagatik, unibertsitateei, Estatuko administrazioei eta gure irakasleei eskatzen diegu konpromisoa har dezatela eta behar diren bitartekoak jar ditzatela baliabide materialen, giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen beharra duten eraldaketa guztiak gauzatu ahal izateko; izan ere, ez du ezertarako balio irakasteko eta ebaluatzeko metodo berri bat terminologia ponpoxoarekin paperean jasotzeak metodo berria ezarri ahal izateko finantzabide egokia ematen ez bada.